

Izen arrunten proposamenak Euskal Herriko zenbait txori espezierentzat

*Lanius nubicus, Vanellus gregarius, Eremophila alpestris,
Phylloscopus proregulus, Glaucidium passerinum,
Myiopsitta monachus, Psittacula krameri.*



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**

Asier Sarasua Aranberri

2022ko abenduan
Euskal Batzorde Ornitologikoa

Lanius nubicus

Antzandobien taldeko kide nahiko tipikoa neurritz eta itxuraz. Sabelalde gorrizka dauka eta gainalde zuri-beltza.

Kumaldia Ekialde Hurbilean egiten du eta negua Afrika ipar-ekialdean igarotzen du, batez ere Sudanen (garai bateko Nubia eskualdean) eta inguruko herrialdeetan. Hortik datorkio izen zientifikoa, *Lanius nubicus*.



Taxonomia

- **Familia:** Lanidae (34 sp.)
- **Generoa:** Lanius (30 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Lanius atticus*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Antzandobi_nubiar
- <https://avibase.ca/E90CC64A>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hegazti honek beste hizkuntza batzuetan duen izena bi talde handitan banatzen da. Hizkuntza batzuk latinetik abiatu dira eta horrela ditugu, besteak beste, Alcaudón núbico (ES) eta Picanço-núbio (PT). Beste batzuek, aldiz, ingelesa hartu dute abiapuntu: Masked shrike (EN), Pie-grièche masquée (FR) eta Capsigrany emmascarat (CA).

Proposamena

Euskaraz ere goiko bi bideetako bat hartzea iruditzen zaigu egokiena. Kontuan izanik antzandobi gehien-gehienek daukatela mozorro edo maskara begi inguruan eta, beraz, mozorro hori ez dela espezie jakin honen bereizgarria, bide hobea iruditzen zaigu izen zientifikotik abiatu eta espezie hau *antzandobi nubiar* izendatzea, eta ez *antzandobi mozorrotu* edo *antzandobi maskaradun* (antzandobi guztiek dutelako nolabaiteko maskara eta izen nahasgarria litzatekeelako).

Proposamena: *Lanius nubicus*, antzandobi nubiar.

Vanellus gregarius

Erdialdeko Asian eta Ekialde Hurbilean bizi den hegabera espeziea. Errusia eta Kazakhstan inguruko estepetan kumatzen da eta oso mehatxatuta dago.

Maskara beltza eta bekain zuri nabarmenak ditu, beste zenbait hegabera espezieetan bezala.

Izen zientifikoa bere izaeratik datorkio, espezie honetako kideak askotan beste hegabera espezie batzuek sortzen dituzten taldeekin elkartzen direlako. Horrela iristen dira tarteka ale solte bakanak Iberiar Penintsulara, hegabera arrunten aldren barnean.



Taxonomia

- **Familia:** Charadriidae (71 sp.)
- **Generoa:** Vanellus (24 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Charadrius gregarius*.

Informazio osagarria:

- <https://eu.wikipedia.org/wiki/Talde-txirri>
- <https://avibase.ca/D348C2D6>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntza guztietan bere izaera sozial eta taldekoi hori aipatzen da, hala nola, Avefría sociable (ES), Fredeluga gregària (CA), Vanneau sociable (FR), Sociable lapwing (EN), Pavoncella gregaria (IT), Abibe-sociável (PT) eta abar.

Europa erdi eta iparraldeko hizkuntzetan, ostera, bizitokia hartu dute izena sortzeko oinarri: Steppenkiebitz (DE), Steppekievit (NL), Stäppvipa (SV), Steppevipe (DK, NO).

Proposamena

Izen generikoan ez dago inolako zalantzarik, espezie hau hegabera bat baita. Generiko horrek, seguru asko, *Vanellus* generoko 24 espezieak izendatzeko ere balio dezake (euskaraz beste hainbat sinonimo baliagarri ere baditugun arren).

Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntza gehienen eta izen zientifikoaren bidetik joko genuke. Espezie honek ez du beste hegabera batzuek baino bereizten duen karaktere deskriptibo fisiko nabarmenirik eta, aldiz, bere izaera taldekoi hori bai da adierazgarria (batez ere gure ikuspegitik, espezie hau beti beste hegabera batzuekin batera iristen delako Europa mendebaldera). Europa iparraldeko aukera ere erabilgarria izan zitekeen (*estepa-hegabera*), baina ezaugarri hori ere ez da erabat espezifikoa eta, hartara, *hegabera taldekoi* edo antzeko formaren bat hobetsiko genuke.

Proposamena: *Vanellus gregarius*, hegabera taldekoi.

Beste aukera batzuk: talde-hegabera, hegabera taldezale, estepa-hegabera, estepako hegabera.

Eremophila alpestris

Ipar hemisferio osoan bizi den espeziea, Amerikako zein Eurasiako eremu zabaletan. Hala ere, Europan bakarrik ipar-ekialdean bizi da eta Euskal Herrian oraingo bezain baina ez da ikusi, Nafarroan.

Alaudidoen taldeko espezie tipikoa da egituraz eta neurritz; bere aurpegi horia eta, batez ere, adar itxurako lumak dira espezie honen bereizgarri nagusiak. Genero honetan 2 espezie daude eta biak dira 'adardunak'; gainontzeko alaudido guztien artean ez dago ezaugarri hori daukan beste espezierik.



Taxonomia

- **Familia:** Alaudidae (100 sp.)
- **Generoa:** Eremophila (2 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Alauda alpestris*, *Alauda cornuta* eta beste.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Hegatxabal_adardun
- <https://avibase.ca/77AFF9B8>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Gure inguruko hizkuntza gehienek izen deskriptiboaren alde egin dute, espezie honetan hain bereizgarriak diren luma-adarrak aipatuz: Alondra cornuda (ES), Alosa banyuda (CA), Horned lark (EN), Calhandra-cornuda (PT), Ohrenlerche (DE)...

Hizkuntza eskandinaviarrak, osteraz, izen zientifikotik hurbilago daude eta bizitokia aukeratu dute izena osatzeko orduan, izen deskriptiboa beharrean: Fjellerke (NO), Bjerglærke (DK), Berglärka (SV), *mendi-hegatxabala*, alegia.

Proposamena

Generikoa aukeratzeko orduan *hegatxabal* aukeratzea iruditzen zaigu, oraingoan, aukerarik onena (hegazti hau *Alauda* generoan egon zen garai batean eta egungo taxonomiak ere horren alde egiten du).

Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntzetan dauden bi bideak egokiak izan daitezke, baina ahal dela izen deskriptiboak hobesteko hautua egin dugunez, *adardun* edo antzekoren baten alde egingo genuke. Kasu honetan, gainera, espeziearen ezaugarriak ikusita argigarriagoa litzateke eta gure inguruko hizkuntza nagusi guztien parean legoke euskara ere.

Proposamena: *Eremophila alpestris*, hegatxabal adardun.

Beste aukera batzuk: mendi-hegatxabal.

Phylloscopus proregulus

Familia eta genero zaila da txioena. 84 espezie dira, denak oso antzekoak, txikiak eta berdexkak, askotan bekain argiarekin. *P. proregulus* ere horrelakoxea da, nahiz eta erregetxoaren antza daukan, izen zientifikoak adierazten duen bezala.

Espezie siberiarra da, negua Txina hegoaldean egiten duena. Ale gutxi batzuk Europa mendebalderaino heltzen dira neguan, horietako bakarren bat Euskal Herrira ere bai, oso lantzean behin.



Taxonomia

- **Familia:** Phylloscopidae (84 sp.)
- **Generoa:** Phylloscopus (84 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Reguloides proregulus*, *Abrornis proregulus*...

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Txio_erregetxo
- <https://avibase.ca/943E36CA>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideetan ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#). Wikipedian *txio erregetxo* aurkitu dugu.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Txori honek ez du ezaugarri fisiko berezirik. Hori dela eta, inguruko hizkuntzetan 2 bide nagusi hartu dira.

Batzuek espeziea deskribatu zuen zientzilariaren izena eman diote, Peter Simon Pallas-ena, alegia: Mosquitero de Pallas (ES), Pallas's leaf warbler (EN), Pouillot de Pallas (FR), Felosa de Pallas (PT).

Beste batzuek, izen zientifikoak iradokitzen duen ezaugarria nabarmendu dute nolabait izen arruntean ere, *proregulus*, erregetxoaren antzekoa, alegia: Mosquiter reietó (CA), Fuglekongesanger (DK, NO), Kungsfågelsångare (SV).

Proposamena

Euskaraz ere inguruko hizkuntzetan hartu dituzten bi bideak dirudite egokienak. Aukera bien artean, deskriptiboagoa izanik, katalanaren bidea hobetsiko genuke eta, izen zientifikoan agertzen den bezala, txio honek erregetxoaren antza duela adieraztea izan daiteke aukerarik onena.

Izena sortzeko aukeren artean *txio erregetxo* edo *erregetxo-txio* ditugu. Kasu honetan aukera hobe da lehenengoa (*txio erregetxo*). Izan ere, espezie batek beste animalia oso ezberdin baten nolabaiteko antza duenean, itxuraz edo jokabidez, sarri erabili izan da euskaraz atributu-elkarketa hori eta, anbiguitasuna saihesteko, marratxorik gabeko aposizio bidez bideratzea hobesten da (*kakalardo tigre*a, *euli eskorpioia*, *marrazo balea*, *inurri lehoia*...). Hegaztien artean ere badugu elkarketa hauen adibiderik, hala nola *hontz gabiraia* (gabirai baten itxura duen hontza) eta *txori zezena* (zezenak bezala orru egiten duen txoria). Lehen osagaia da hitz-elkarte hauetako sintagma-buru eta bigarren osagaiak egiten du adjektibo-lana. Hau da, lehenengo izenak du esanahi nagusia eta bigarren izenak nolabait zehaztu egiten du lehenengoa, atributu funtzioa eginez. *Txio erregetxo* litzateke, beraz, izenik egokiena.

Proposamena: *Phylloscopus proregulus*, txio erregetxo.

Glaucidium passerinum

Glaucidium generoan 33 espezie daude. Itxuraz oso antzekoak dira denak: oso txikiak (15-25 cm), kolorez arreak, bizkarralde tantodun edo pikarta dutenak, mokohoriak eta sabelzuriak.

Ia denak tropikalak dira eta oso eremu geografiko murriztean bizi dira. Espezie hau, ostera, ez da tropikala eta, gainera, nahiko esparru zabalean bizi da, Eurasiako hainbat eskualdetan.

Europa mendebaldeari dagokionez, Alpeen inguruan eta Eskandinavian bizi da gehienbat. Duela gutxi Pirinioetan ere agertu dira bikote bakan batzuk.



Taxonomia

- **Familia:** Strigidae (234 sp.)
- **Generoa:** Glaucidium (33 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Strix passerina*, *Noctua minima*...

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Mozolo_txiki
- <https://avibase.ca/79E2AC7C>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideetan ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#).

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Aztertu ditugun hizkuntza guztietan izen arruntak mozolotxo honen neurri txikia azpimarratzen du. Adibidez, Mussolet eurasiatic (CA), Chevêchette d'Europe (FR), Mochuelo chico (ES), Eurasian pygmy owl (EN), Civetta nana (IT),...

Hizkuntza eskandinaviarretan "txolarre" aurrizkia erabiliz adierazten dute mozolo txiki honen neurri ñimiñoa (izen zientifikoak egiten duen bezala, *passerinum*): Sperlingskauz (DE), Spurveugle (NO, DK), Sparvuggla (SV), eta abar. *Mozolo txolarreak*, alegia.

Proposamena

Iruditzen zaigu espezie honen kasuan generikoa aurkitzea dela lanik garrantzitsuena. Hau da, *Glaucidium* generoko 33 espezieentzat generiko garbi bat beharko genuke, *Athene* generotik bereiziko lituzkeena. Horrela egin dute Europa mendebaldeko hizkuntza ia guztiek (gaztelania da salbuespen bakarretakoa): *owlet* eta *pigmy-owl* (EN), *mussolet* (CA), *sparvuggla* (SV), *chevêchette* (FR), *civetta nana* (IT) eta abar.

Goian aipatutako horien bidetik, euskaraz ere *Glaucidium* generoarentzat izen berezi bat adostea komeni zaigu, *Athene* generoaren 'mozolo' hitzetik bereiziko duena eta genero honetako kide guztien neurri txikia adieraziko duena. *Mozolotxo* izan daiteke izen generiko hori (*koartzatxo*, *txirritxo* eta *txinbotxo* ereduak jarraituz). Garbiena eta gardenena da, zalantzarik gabe.

Espezifikatzaileari dagokionez, sarreran esan bezala, genero honetako espezie guztiak oso antzekoak dira itxuraz. Espezie honek, ordea, badu ezaugarri berezi bat: Europan bizi den bakarra da eta Eurasiako eremu zabalean aurkituko dugu, gainera. Hartara, ingelesak, katalanak eta frantsesak hartutako bidetik, *mozolotxo eurasiar* izan daiteke izenik zuzen, argi eta adierazgarriena.

Proposamena: *Glaucidium passerinum*, mozolotxo eurasiar.


Psittacula krameri

Familia erraldoia da papagaiena (Psittacidae, ia 400 espezie). Kide gehienak oso antzekoak dira, tropikalak, neurri ertainekoak eta kolore berdea nagusi dutenak, moko laranja-gorritzarekin.

Genero honen bereizgarri nabarmenena lepokoa da, genero honetako ia espezie guztietan azaltzen dena (osoa edo partziala).

Familia honetako espezie guztiak Asia hegoekialdekoak dira, India eta Indotxina artekoak. Hauxe da Afrikan bizi den bakarra, Indian ere bizi bada ere.

Europan gizakiaren eskutik sartu da eta espezie inbaditzailea da, besteak beste Iberiar penintsulan, non gero eta ugariagoa den eta arazo bilakatzen ari den.



Taxonomia

- **Familia:** Psittacidae (389 sp.)
- **Generoa:** Psittacula (13 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Alexandrinus krameri*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Psittacula_krameri
- <https://avibase.ca/6B1CFC3C>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideetan ez dugu aurkitu euskarazko izen arruntik: [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#).

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Cotorra de Kramer (ES, CA), Rose-ringed parakeet eta Ring-necked parakeet (EN), Perruche à collier (FR), Parrocchetto dal collare (IT), Periquito-de-colar (PT), Halsbandsparakit (SV), Halsbandsittich (DE) eta abar.

Europa mendebaldeko hizkuntza gehienetan hegaziaren lepokoa edo idunekoa aipatzen da izen arruntean. Gaztelania eta katalana dira gure inguruko salbuespen nagusiak.

Proposamena

Generiko garbia du espezie honek, *papagai*. Halaxe izendatzen dira euskaraz Psittacidae familiako (eta bereziki Psittacula generoko) espezieak.

Espezifikatzaileei dagokionez, hizkuntza gehien bidea jarraitu dezakegu eta *lepokodun* izendatu. Dagoeneko badugu eredu hori beste zenbait espezetan (*leming lepokoduna* eta *txirri lepokoduna*). Aurrera begira, beharbada, genero mailakoa litzateke *papagai lepokodun* binomioa, genero honetako 13 espezieetako bakoitzari espezifikatzaile zehatza erantsiz. Oraingoz ez dirudi horretarako beharrik dugunik euskaraz.

Gaztelaniaren bidea jarraitzea litzateke beste aukera erraz bat, izen zientifikotik abiatu eta *Kramer papagaia* izendatuz. Gaztelaniak hartutako bidea salbuespena izanik, ez zaigu iruditzen biderik aproposena.

Proposamena: *Psittacus krameri*, papagai lepokodun.

Beste aukera batzuk: Kramer papagai.

Myiopsitta monachus

Oso homogenea den papagaien familia zabalean, *Myiopsitta* generoko 2 espezieak nahiko ezberdinak eta ezaguterrazak dira, bular eta kopeta grisa dutelako, Psitazidoen artean salbuespena dena.

Itxuraz oso antzekoak dira genero honetako bi espezieak, *Myiopsitta monachus* eta *M. luchi* (sailkapen batzuetan espezie bakarra osatzen dute). Bizilekuari dagokionez, ostera, bigarren hori oso eremu zehatzekoa den bitartean (Boliviako eskualde batean bakarrik bizi da), *M. monachus* oso zabalduta dago Hego Amerikako hainbat herrialdetan.

Europar gizakiaren eskutik sartu da eta espezie inbaditzailea da, besteak beste Iberiar penintsulan, non gero eta ugariagoa den eta arazo bilakatzen ari den.



Taxonomia

- **Familia:** Psittacidae (389 sp.)
- **Generoa:** Myiopsitta (2 sp.)
- **Sinonimoa(k):** -

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Papagai_bulargris
- <https://avibase.ca/35810386>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu: [Euskalterm](#) eta [Elhuyar hiztegia](#) eta ez dugu aurkitu hegazti honendako euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Cotorra argentina (ES), Cotorreta pitgrisa (CA), Cotorra de peito gris (GL), Conure veuve (FR), Monk parakeet (EN), Periquito-monge (PT), Parrocchetto monaco (IT), Mönchssittich (DE), Monniksparkiet (NL), Munkparakit (SV), Munkeparakitt (NO).

Proposamena

Izen deskriptiboak lehenesteko dugun irizpide nagusia jarraituz, katalanaren eta galizieraren eredia jarraitzea iruditzen zaigu egokiena. Kasu honetan papagai honen bular grisa oso adierazgarria da eta horixe hobetsiko genuke: *papagai bulargrisa*. Izen garbi eta argia iruditzen zaigu, izen zientifikotik abiatzea baino hobea, azken horrek (*papagai monje*) ez digulako inolako argibiderik ematen.

Proposamena: *Myiopsitta monachus*, papagai bulargris.

Beste aukera batzuk: papagai monje.

Asier Sarasua (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Gorka Gorospe (Mirua Actividades de Naturaleza), Gorka Belamendia (Salburuko Ataria Interpretazio Zentrua), Juan Arizaga (Aranzadi Zientzia Elkarte), Txema Fernandez (HAZI, Eusko Jaurlaritza).

Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2022ko abenduan